

WAMU-ren **balio proposamena lehiakideengandik** bereizten duten hainbat ezaugarriak osatzen dute:

Teknologia aurreratuak erabiltzen ditu, ahots eta ikusmen laguntzarekin.

Ikusmen laguntzak: Aplikazioa **braille teknologia** eta **irakurketa erraza** bezalako funtzionalitateak eskaintzen ditu, ikusmen zailtasunak dituzten erabiltzaileei erraztasunak eskaintzeko. Informazioa edo gurekin harremantzeko bai **irakurketa errazarekin** eta baita **braille bidez**, komunikazio zailtasunak dituzten pertsonentzako egokitutako funtzionalitateekin.

1

Gure zerbitzuak pertsonalizatuak dira, adibidez, TDAH edo sordocegueraren bezeroei zuzendutako soluzioak eskaintzen ditugu, erabiltzaile bakoitzaren beharretara egokitutako teknologiak eta laguntzak barne hartzen dituztenak.

Pertsonalizazioa

Bezeroen beharrei erantzuteko ikastaro pertsonalizatuak eskaintzen ditugu, non adibidez, gizarteratzea edo irigarritasuna behar duten pertsonak zerbitzua nola hobeto erabil dezaketen ikasten duten.

Lana erraztea

Gure aplikazioa erabiltzen duten **entzumen arazoak** dituzten bezeroek testua egokituta jasoko dute informazioa, komunikazioa errazteko eta eguneroko lanak hobetzeko.

Diseinua

Gure plataformak erabiltzeko errazak eta atseginak dira, hala nola, pantaila handiagoak eta kontraste altuak dituzten diseinuak, erraztasun handia eskaintzen duten erabilera-interfazeak, adineko pertsonentzako edo ikusmen arazoak dituztenentzako.

Prezioa

Gure zerbitzuek prezio lehiakorrak dituzte, esaterako, abonamendu sistema bat duten zerbitzuak, non bezeroek kalitate handiko laguntza etengabea jasotzen duten prezioaren inguruan lehiakorrak diren tarifekin. Gure tarifak erabat egokituak daude, bezeroen beharretara moldatuz eta merkatuan konpentsatutako prezioekin alderatuta.

Arriskuen murrizketa

Bezeroek gure zerbitzuak fidagarri eta segurutzat jotzen dituzten bitartean, beren komunikazio beharrak modu eraginkorrean eta pertsonalizatuan betetzen ditugu.

Eskuragarritasuna

Gure zerbitzuak edozein unetan eskuragarri daude, bezeroek 24 orduko laguntza telefonoa edo online plataforma erabil dezakete, noiznahi zerbitzua jasotzeko.

Erabil erraztasuna

Gure plataformak erabiltzeko oso errazak dira, bezeroek lehenengo aldiz erabiltzen dutenean ere, eta gure taldeak laguntza eskaintzen du hasierako konfigurazioan eta erabilera-tresnak ulertzen laguntzen du, bezeroak plataforma modu eraginkorrean erabiltzen has daitezen.

WEIBA (Autismoa): 20-25€/ordu

ADRIANA (Entzumen Arazoak): 20-25€/ordu

MIREIA (Hizkuntza Nahasmendua): 20-25€/ordu

UDANE (Gor-itsutasuna): 20-25€/ordu

Prezioak **negoziatu daitezke** proiektuaren eta zerbitzuaren arabera.

Negoiazio Aukerak:

- Prezioa **egoeraren arabera** egokitu daiteke, eskatutako zerbitzuaren luzeraren eta intentsitatearen arabera.
- **Talde edo proiektu handietan** prezioa negoziatu daiteke, gehi zerbitzu pertsonalizatuak edo eskakizun bereziak.

Hau guztia dela eta, WAMUren bezeroek gure zerbitzuak ordaintzeko prest egongo dira, **soluzio integralak** eskaintzen ditugulako; ez bakarrik beren beharrak betetzen dituztenak, baizik eta pertsona desgaituekin eta erakundeekin lan eginez, haien bizitza hobetzeko eta gizartean inklusio handiagoa lortzeko aukera ematen dutenak. Gure balioak **prezioan** bakarrik ez, baizik eta **kalitatean, berrikuntzan eta pertsonalizazioan** oinarritzen dira, eta horregatik, gure bezeroek benetako balioa jasotzen dute.